



IRAKASLE-IKERTZAILEEK ERRETIROA EDO ERRETIRO PARTZIALA HARTU AURREKO NEURRIEN DEIALDIA

Ohiko galderak

Dokumentuaren eguneratze data: 2025/11/06

Kontaktua: jubilaciones-pdi.vicer.profesorado@ehu.eus

Erretiroa hartzeko adinari eta erretiroa hartu osteko pentsioari buruzko baldintza zehatzak ez dira UPV/EHUren eskumena. Zalantzak argitzeko, jo erakunde hauetara:

KLASE-PASIBOAK (2011 baino lehenagoko MUFACEkoak):

Informaziorako telefonoa; 900 50 30 55

[Sartu Klase-Pasiboen Webera](#) (*Kontsultaren gaia: Régimen de Clases Pasivas*)

[Bidali kontsulta Klase-Pasiboak atalera](#)

[Aurretizko hitzordua](#)

GIZARTE SEGURANTZAren Erregimen Orokorra:

Informaziorako telefonoak: 901 16 65 65 eta 915 42 11 76.

[Sartu Gizarte Seguntzaren Webera](#)

[Bidali kontsulta Gizarte Segurantzera](#)

[Aurretizko hitzordua](#)

Ohiko galderak eta erantzunak:

1. Nola eskatu behar dira irakaskuntza-gaitasunaren murrizketak edo txanda-kontratua?

Dagokion eskabidea aurkeztu beharko da ezarritako epearen barruan (azaroaren 12a barne), [Erregistro Elektronikoko Orokorrearen](#) bidez. Eskaera "Irakasle eta ikertzaileen Ataleko Unitatera" bidali behar da.

2. Zer eranskin erabili behar dut kasu bakoitzean?

- Erretiroa hartu **aurreko murrizketak, ordaindutako baimena edo eszedentzia bezalako neurriak** baliatu nahi dituzten pertsonak I. Eranskina (behin betiko erretiroa) eta III. Eranskina (neurriak) aurkeztu beharko dituzte.
- **Erretiro partzialaren** modalitatea hartu nahi dutenek II. eranskina (erretiro partziala) baino ez dute aurkeztu beharko. Kasu horretan, pertsonak kontrakoa adierazi ezean, erretiroaren simulazio-txostenean adierazitakoa hartuko da behin betiko erretiro-data gisa.
- **Aurretiko murrizketak eta erretiro partziala** konbinatu nahi dituzten pertsonak II.a (erretiro partziala) aurkeztu beharko dute.

3. Erabakiko tauletan agertzen diren adinetako bat izan behar dut erretiroa hartu ahal izateko?

Ez. Pertsona batek erretiroa hartzeko izan behar duen adina ez du zehazten UPV/EHUK, baizik eta Gizarte Segurantzak edo MUFACE-Klase Pasiboek, kontuan hartuta interesatuari dagokion erregimena eta bere kotizazio aldiak. Klase-pasiboen kasuan, baldintzak Apirilaren 30eko RD 670/1987 Errege Dekretuak zehazten ditu, Estatuko Klase Pasiboen Legearen testua bateratuz,. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko pertsonen kasuan, urriaren 30eko RD 8/2015 Errege Dekretuak zehazten ditu, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testua bateratuz.

Hala ere, interesatua adin tarte baten barruan egon behar da (tauletan agertzen dena) erabakian jasotzen diren murrizketak eskatu ahal izateko.

4. Sinatutako irakaskuntza-gaitasunaren murrizketak errespetatuko dira?

Bai. Aurreko deialdietan eskatutako murrizketei dagozkien erabakiek indarrean diraute, baina langileren batek aukera aldatu nahi badu akordio berria onuragarriagoa iruditzen zaiolako edo erretiroa hartzeko adina taula berrietan aurreikusitakoaren arabera atzeratu nahi duelako, dagozkion eranskinak aurkez ditzake:

- Erretiroa hartu **aurreko murrizketak, ordaindutako baimena edo eszedentzia bezalako neurriak** baliatu nahi dituzten pertsonak I. Eranskina (behin betiko erretiroa) eta III. Eranskina (neurriak) aurkeztu beharko dituzte.
- **Erretiro partzialaren** modalitatea hartu nahi dutenek II. eranskina (erretiro partziala) baino ez dute aurkeztu beharko. Kasu horretan, pertsonak kontrakoa adierazi ezean, erretiroaren simulazio-txostenean adierazitakoa hartuko da behin betiko erretiro-data gisa.
- **Aurretiko murrizketak eta erretiro partziala** konbinatu nahi dituzten pertsonak II.a (erretiro partziala) aurkeztu beharko dute.

5. Eranskinez gain, zer dokumentazio erantsi behar dut?

Kontratututako langileen kasuan, honako hauek aurkeztu behar dituzte:

- Erretiroaren simulazio-txostena: [Esteka](#) honen bidez eskura daiteke
- Lan-bizitzari buruzko txostena: [Esteka](#) honen bidez eskura daiteke

Funtzionarioen kasuan, honako hauek aurkeztu behar dituzte:

- Lan-bizitzari buruzko txostena: [Esteka](#) honen bidez eskura daiteke
- Ofizioz egiaztatuko da Klase Pasiboekin.

6. Aurretiko murrizketak eta, ondoren, erretiro partziala planteatuz gero, nola aplikatuko lirateke murrizketok?

Taula hau prestatu dugu adibide gisa:

METAKETARIK GABE

2025-26	2026-27	2027-28	2028-29	2029-30	2030-31
2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.
%12,5	%25	%37,5	%83	%75	%75
<i>Murrizketak</i>			<i>Murrizketak + erretiro partziala</i>	<i>Erretiro partzial egoera</i>	

METAKETA PARTZIALAREKIN

2025-26	2026-27	2027-28	2028-29	2029-30	2030-31
1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.
0	0	%75	%83	%75	%75
<i>Murrizketak</i>			<i>Murrizketak + erretiro partziala</i>	<i>Erretiro partzial egoera</i>	

METAKETA OSOAREKIN

2025-26	2026-27	2027-28	2028-29	2029-30	2030-31
1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.	1. eta 2. lau.
0	0	%8	%100	%100	%100
<i>Murrizketak</i>			<i>Murrizketak + erretiro partziala</i>	<i>Erretiro partzial egoera</i>	

7. Zailtasunak ditut eranskinak PDF formatuan betetzeko. Zer egin dezaket?

Jar zaitez gurekin harremanetan jubilaciones-pdi.vicer.profesorado@ehu.eus helbidera idatziz, eta artxiboak Word formatuan helaraziko dizkizugu, errazagoa izan dakizun.